

BURUKETEN NAHASKETA

1. Sukalde bat konpontzeko 1125 lauza behar dira. Zenbat balio dute lauza guztiek 25eko kaxak 51'75 € balio badu?

OROITU, KOMAK GOIAN ETA ZIFREN ARTEAN PUNTURIK EZ

_____ € balioko dute lauza guztiek.

2. Jonek ontzi batean zegoen esnearen $\frac{5}{6}$ atera du eta 32 litro geratu dira. Zenbat litro atera ditu? Zenbat litro esne zeuden ontzian?

_____ litro atera ditu.

_____ litro zeuden ontzian hasieran.

3. Herri batean 15280 biztanle daude erroldan. Horietatik %70 herrian jaio badira, zenbat dira kanpoan jaio direnak?

EZ JARRI PUNTURIK ZIFREN ARTEAN

_____ biztanle kanpoan jaio dira

4. Abeltzain batek 65 litro esne saldu ditu 45'50 eurotan (65 litroak). Zein izan da bere irabazia, 10 litro ekoiztea 35 zentimo kostatzen bazaio?

OROITU, KOMAK GOIAN.

_____ € irabazi du.

5. Ikastetxe bateko futbol taldeak eskola arteko ligako 30 partida jokatu ditu. Partiden %70 irabazi du eta %20 berdindu. Zenbat partida galdu ditu?

_____ partida galdu ditu

6. Txorrota batek 9 minutu behar ditu 450 litrokoa den bainuontzia betetzeko. 500 litrokoa izango balitz, zenbat denbora beharko luke?

_____ minutu beharko luke

7. 90 metro karratuko etxebizitza batek 126000 € balio du. Kalkulatu zenbat balio duen 105 metro karratuko etxebizitza batek.

OROITU, EZ JARRI PUNTURIK ZIFREN ARTEAN

_____ € balioko du